

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 157/2022 Erabakia, martxoaren 15ekoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe toki erakundeek sustatuta kultura ondare higiezina kontserbatu eta/edo zaharberritzeko 2022an egingo diren esku hartzeetarako dirulaguntzen deialdia

Kultura eta Kirol Sailak diruz laguntzea aurreikusi du Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe toki erakundeek sustatutako ekimenak, 2022ko ekitaldian, elementu txikiak, eraikinak eta ermitak kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak sustatzeko. Hori guztia, honako hauetan xedatutakoaren arabera: Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea, Gaztela eta Leongo Kultura Ondarearen uztailaren 11ko 12/2002 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legea eta Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduera Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua.

Horretarako, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen esparruan, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emateko eta publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioen eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren berri emateko, foru agindu honen bidez ezartzen da berriazko esparru arautzailea, eta hartara egokitu behar dira kultura ekimenak, Sailak dirulaguntzak eman ditzan.

Trebiñuko enklabean egiten diren esku-hartzeak jasota daude Burgosko Diputazio Probintzialarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenean (Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 454/2021 Erabakiaren bidez onetsita), zeinaren bidez garatzen baita, historia eta arte ondasun babestuek kontserbatu, mantendu eta zaharberritzearen arloan, Trebiñuko enklabeari buruzko esparru akordioa.

Ikusirik aginduzko txostenak.

Haien ondorioz, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Kultura ondasun higiezinak zaintzeko eta/edo zaharberritzeko 2022an Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe toki erakundeek sustatutako esku-hartzeak garatzeko dirulaguntzen deialdia onestea.

Bigarrena. Ondoko hauek arautuko dute deialdi hau: norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak, Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, harez geroko aldakuntzak eta ebazpen honen eranskinean xedatutakoa.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren 70109. G/336702/76800700 aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira, honela:

“Elementu txikiak kontserbatu eta zaharberritzea”: 136.000 euro, zorpekin erreferentzia: 105.912; “Ermitak kontserbatu eta zaharberritzea”: 75.463,14 euro, zorpekin erreferentzia: 105.914; “Eraikinak kontserbatu eta zaharberritzea”: 85.000 euro, zorpekin erreferentzia: 105.913.

Lugarrena. Oinarri arautzaileen 7.1. apartatuan ezarritakoaren arabera (Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa), deialdiko laguntza-lerroetako batean sortzen diren soberakinek beste lerroetako edozein handitu ahal izango dute ekitaldi beraren barruan, dagoen ebazpena dela medio, betiere deialdiaren gutzirako aurrekontua errespetatuz.

Laugarrena. Oinarri arautzaileen 7.1. apartatuan ezarritakoaren arabera (Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa), deialdiko laguntza-lerroetako batean sortzen diren soberakinek beste lerroetako edozein handitu ahal izango dute ekitaldi beraren barruan, betiere deialdiaren guztirako aurrekontua errespetatuz.

Bosgarrena. Organo eskudunak, balioespen batzordeak proposatuta, eman beharreko ebazpenak emango ditu gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Seigarrena. Laguntzak eman edo ukatzen dituen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei banan-banan elektronikoki, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan aurreikusitakoarekin.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zortzigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Dena dela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bat etorritz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. eta 46.1 artikuluetan aurreikusitakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M^a INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

Eranskina

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe ko kultura ondare higiezina kontserbatu eta/edo zaharberritzeko esku hartzeetarako dirulaguntzetarako deialdi publikoa

1. artikulua. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe ko toki erakundeek sustatutako elementu txikiak, eraikinak eta ermitak kontserbatu eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak bultzatzeko, 2022ko ekitaldian, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak xedatutakoaren esparruan, zeinaren bidez onetsi baitziren Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak.

Jardun horiek lege hauek xedatutakoaren arabera egingo dira: Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea, Gaztela eta Leongo Kultura Ondarearen uztailaren 11ko 12/2002 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legea eta Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduera Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua.

Trebiñuko enklabean egiten diren esku-hartzeak jasota daude Burgosko Diputazio Probintzialarekin izenpetutako lankidetz hitzarmenean (Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 454/2021 Erabakiaren bidez onetsita), zeinaren bidez garatzen baita, historia eta arte ondasun babestuek kontserbatu, mantendu eta zaharberritzearen arloan, Trebiñuko enklabeari buruzko esparru akordioa.

2. artikulua. Emakidaren prozedura

Dirulaguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira.

3. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako bideratutako hornidura, zeina Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren "elementu txikiak, eraikinak eta ermitak kontserbatu eta zaharberritzea" izeneko 70109. G/336702/76800700 aurrekontu partidaren kontura ordainduko baita, honela banatuta:

"Elementu txikiak kontserbatu eta zaharberritzea": 136.000,00 euro.

"Ermitak kontserbatu eta zaharberritzea": 75.463,14 euro.

"Eraikinak kontserbatu eta zaharberritzea": 85.000,00 euro.

Oinarri arautzaileen 7.1. apartatuan ezarritakoaren arabera (Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa), deialdiko laguntza-lerroetako batean sortzen diren soberakinek beste lerroetako edozein handitu ahal izango dute ekitaldi beraren barruan, betiere deialdiaren guztirako aurrekontua errespetatuz.

4. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

Esleitu beharreko dirulaguntza bakoitzaren kopurua izango da 9. artikuluan horretarako ezarritako ehunekoen aplikaziotik ateratzen dena, eta, edonola ere, ez du inola gaindituko 60.000 euroko kopurua eskatzaile bakoitzeko. Kultura eta Kirol Sailaren ekarpena ez da inbertsioa egin ondoren guztira izan den kostuaren ehuneko 80 baino handiagoa izango.

Arabako Foru Aldundiak, konplexutasun tekniko bereziarengatik nahiz arkitektura balioagatik gomendagarria denean, dagozkion proiektuak idatzi ahal izango ditu, edo obren zuzendaritzan parte hartu, bere zerbitzu teknikoaren bitartez.

5. artikulua. Erakunde onuradunak eta betekizunak

1. Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe ko udalak, kuadrillak eta bestelako toki erakundeak izango dira erakunde onuradunak. Horretarako, diruz laguntzeko diren ekintzen sustatzaile moduan jardun behar dute.

Deialditik kanpo geratzen dira Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotzen diren egoeretan dauden erakundeak. Dekretu horrek onepena eman zien Kultura eta Kirol Sailak dirulaguntzak norgehiagoka bidez ematea arautzeko oinarri orokorreari.

2. Kontserbatu eta/edo zaharberritzeko esku hartzeen kasuan, dirulaguntzaren xede diren elementu txikien, ermiten eta eraikinen titularrak izan beharko dira edo, bestela, haiek erabiltzeko eskubidea izan (kontratua, hitzarmena, gozarmena, etab.), bost urtez gutxienez deialdia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera, salbu eta Arabako Foru Aldundiak egiten dituen lagapenak badira.

6. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak

Hauetarako eman ahal izango da dirulaguntza:

1. Kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak gauzatzeko eta katalogatutako ondasun higiezinak dokumentatzeko beharrezkoak diren proiektuak, azterlanak, inbentarioak eta abar.

2. Elementu txikiak, eraikinak eta ermitak kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko obrak, aurreko apartatuan adierazi diren proiektu eta azterlanen arabera egiten badira edo toki erakundeek Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren irizpideekin egindakoetan oinarrituz egiten badira. Halaber, diruz lagundu ahal izango dira zaharberritu beharreko elementu txiki, eraikin edo ermitaren ingurunea urbanizatzeko obrak, hiri ikuspegiari balioa emateko nahiz soil-soilik helburu funtzionaltarako balio dutenak.

Beharrezkoa da elementu txiki, eraikin eta ermita horiek honelakoak izatea:

a) Babes bereziko edo ertaineko monumentu deklaratuak, honako hauen arabera: Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea, Gaztela eta Leongo Kultura Ondarearen uztailaren 11ko 12/2002 Legea eta 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legea.

b) Udal plangintzak edo plangintza sektorialak katalogatuak.

c) Katalogatzeko proposamenen batean, garrantziko arkitektura multzoren batean edo Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo Gaztela eta Leongo Juntak egindako inbentarioren batean jasoak.

Ez dira inola ere diruz lagunduko "auzolan"ak.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa baino (40.000 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta obra kontratuak badira, edo 15.000 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta horniketa edo zerbitzu kontratuak badira), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzailei, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Hiru eskaintzak frogagiriekin batera edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran aurkeztu beharko dira. Haien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

7. artikulua. Eskaerak aurkeztea

Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>); horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute alde zurretik. Egoitza elektronikoa sartzeko bideak zeintzuk diren eta erakunde ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo: Ezagutu egoitza – Nola sartu izeneko atalera.

Erakunde eskatzaileak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan dagoen inprimakia bete beharko du, informazio honekin batera:

1. Erakundearen organo eskudunak laguntza programatuak eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

2. Elementu txikiaren, eraikinaren edo ermitaren kultura inguruneari buruzko txostena. Kultura ondasunaren eta haren kokagunearen dokumentazio grafikoa eta/edo ikus-entzunezkoa jaso beharko ditu, behar beste eta eguneratuta.

3. Esku hartzearen xedea azaltzen duen agiria. Han, honako hauek agertuko dira:

2.1. Proiektuak, azterlanak, inbentarioak, etab. direnean: idatzi beharreko dokumentu teknikoa idaztea komenigarria dela azaltzen duen memoria.

2.2. Kontserbatu eta/edo zaharberritzeko obrak direnean: esku hartzearen proiektu teknikoa edo, hala badagokio, aurrekontu xehatua eta txostena, gaitutako teknikariak izenpetua, nahikoa den informazio grafiko eta idatziak osatua.

4. Kasu bakoitzari aplikagarria zaionaren arabera, proiektuak, azterlanak etab. idazteko ordainsarien aurrekontua, eta obra zuzendaritzako ordainsarien (arkitektoa), obra gauzatzeko ordainsarien (arkitekto teknikoa) eta segurtasun eta osasun koordinazioko ordainsarien (arkitektoa edo arkitekto teknikoa) aurrekontua.

5. Elementu txikiaren, eraikinaren edo ermitaren jabetzaren egiaztatzea edo hura gutxienez bost urtez (ALHAOn deialdi hau argitaratzen den datatik aurrera zenbatzen hasita) erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen titulua. Azken kasu horretan, jabearen baimena ere aurkeztu beharko da, dirulaguntzaren xede diren obrak egiteko.

Eskaerak adierazitako betekizunak betetzen ez badituzte, edo informazioa ez bada behar bezain argia, Kultura eta Kirol Sailak interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu, azalpenak eman edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

9. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Saileko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua izango da prozeduraren instrukziorako organo eskuduna.

Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuak: Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak aztertu eta xehakatuko ditu eskaeretan aurkeztutako aurrekontuak, aurrekontua diruz lagundu daitezkeen erabakitzeko, zeinak deialdiaren helburuarekin bat datozen jardunei zuzenean bideratutako lanen obren jasoko baititu. Horrek aldeztu aurretiko azterlanen, proiektuen eta/edo obren batura jaso ahal izango du. Esku hartzearen diruz laguntzeko moduko aurrekontu osoak aldeztu aurretiko azterlanen, proiektuaren, zuzendaritza teknikoaren, betearazpen materialaren zuzendaritzaren eta segurtasun eta osasun koordinazioaren ordainsariak jaso ahal izango ditu. Halaber, partida ez egokiak baztertu edo, hala badagokio, murriztu ahal izango dira, baita gehiegi balioetsitako neurketak edo aurrekontuak ere.

Esku hartze lanak zenbait fasetan programatu ahal izango dira, eta horretarako, urte anitzeko plangintza ezarriko da (hala badagokio), laguntzei egokitua. Plangintza horretan, diruz lagun daitezkeen aurrekontuak ezarriko dira honako hauen arabera: bideragarritasun teknikoa, esku hartzeak dituen ezaugarri teknikoak eta gutxi beherako epea; gainera, obrak gauzatzeko baldintzak ezarriko dira, adibidez, teknikak eta materialak aldatu ahal izatea edo bateragarri izatea. Hori guztia egingo da aurrekontu krediturik badago, jakina.

Programazio hori Arabako Foru Aldundiaren aholkularitza jarraituak beharrezkoak dituen zorrotasun metodologikoa eta ohi baino espezializazio handiagoa bultzatzeko egingo da, aldundiak ditu-eta eraikitako kultur ondarearen tutoretzarako eta zaintzarako eskumena. Hori guztia ondareari balioa emateko egiten da, honako hauetan jasotako jardunen esparruan: Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea, Gaztela eta Leongo Kultura Ondarearen uztailaren 11ko 12/2002 Legea eta 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legea.

Esku hartzea urte anitzetarako planifika badaiteke, ezarritako faseak banan-banan justifikatu beharko dira, deialdiari egokituta, eta berdin dio gauzatzea batera edo zatika egiten den.

Proposatutako esku hartzeen balioespina honako irizpide hauek kontuan izanda egingo da:

a) Esku hartzearen premia: 25 puntu.

b) Balio historiko-arkitektonikoa: 20 puntu.

Kontuan hartuko dira babes bereziko edo ertaineko monumentu adierazpena; udal edo sektore plangintzaren babes katalogoetara sartu izana; Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren edo Gaztela eta Leongo Juntaren katalogazio proposamenen batean bildu izana; garrantziko arkitektura multzo batekoa izatea, edo eraikina Arabako Foru Aldundiak edo Gaztela eta Leongo Juntak egindako inbentarioren batean bildu izana.

c) Kultura aldetik duen esanahia eta interesa: 20 puntu.

Kontuan hartuko dira interes etnografikoa, interes turistikoa, paisaia interesa eta beste erabilera publiko batzuetarako gizarte interesa; baita haiek lurralde proposamen estrategikoetan eta proposamen estrategiko orokorretan sartzea ere (ibilbideak oro har, kultura ibilbideak, 21 Agenda, kuadrilletako proiektu estrategikoak...).

d) Jarraitasuna izatea urte anitzetarako planifikatutako lanetan: 25 puntu.

Aurretik diruz lagundutako aldeztu aurretiko azterlanetan, aurreproiektuetan edo proiektuetan oinarritutako lanak, baldin eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak finkatutako monumentuak zaharberritzeko irizpideen arabera landu badira	9 puntu
Aurreko faseen jarraipen diren obrak	9 puntu
2018an, 2019an edo 2020an eskatutako proiektu edo obrak, bere garaian dirulaguntzarik jaso ez zutenak aurrekontu baliabide ezagatik	7 puntu

Esku hartzeek azpi irizpide bat, bi edo hirurak bete ahal izango dituzte; horrela, puntuak batuko dira puntuazio osorako.

e) Aurkeztutako proiektuaren edo memoria teknikoaren kalitatea: 10 puntu.

Hauek balioetsiko dira: dokumentazio teknikoaren kalitatea; proiektua edo memoria zenbaiten egokitzen zaion proposatutako esku hartzeari; metodologia, baliabide teknikoak eta materialak egokiak diren, eta hori guztia proposatutako zaharberritzea kultura ondasun higiezinari balioa emateari begira egin dadin, bat etorri aplikatzekoak diren arauekin eta Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak emandako zaharberritze jarraibide eta irizpideekin.

Jardun bakoitzean, aurreko irizpideetako puntuazioak batuko dira, eta batura horren emaitza hartuko da kontuan. Horrela lortutako kopuruari zuzenean proportzionala den ehuneko esleituko zaio, eta eman ahal den gehieneko dirulaguntza, hots, ehuneko 80, emaitzarik onenari emango zaio (81-100). Goitik beherako hurrenkeran, kasu bakoitzean proportzionaliki aplikatzen dira ehunekoak, era honetan:

81-100	ehuneko 80
71 - 80	ehuneko 72
61 - 70	ehuneko 68
51-60	ehuneko 64
50 edo gutxiago	ehuneko 60

Hala lortutako ehunekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatuko zaio kasu bakoitzean; horrela kalkulatu da "proposatutako dirulaguntza"; hau da, jardun bakoitzari dagokion laguntza teorikoa, eta ezarritako balioespina egin ondoren sortzen den lehentasun ordenaren arabera egingo da, eta balioespen handiena duten eskaerei emango zaie lehentasuna, laguntza hauen deialdiaren zenbateko osoa osatu arte.

Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna emango zaio d), a), b), c) eta e) ataletan puntuaziorik handiena lortu duenari, hurrenez hurren, aurrekontu esleipena agortu arte.

Urte anitzetarako planifikatutako obretan, azken fasean, aurrekontu orokorra hartu ahal izango da kontuan, kalkulatu beharreko laguntza kalkulatzeko.

Gerakinik, ezeztatzerik edo uko egiterik izanez gero, zenbatekoak deialdian aintzat hartutako eskaeren obra, proiektu eta azterlan osagarrietarako bideratu ahal izango dira; horretarako, txosten teknikoan justifikatu beharko da zenbatekoak handitu behar direla, gertatutako gorabehera eta ustekabeak kontuan izanda. Gehikuntza horiek beharrezkoak ez badira, norgehiagoka bidez egindako proposameneko zerrendan deialdian lehenago aintzat hartu ez den hurrengo eskaerara bideratu ahal izango dira, betiere ekonomia aldetik bideragarria bada.

10. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Eskaerak balioespen batzordeak aztertuko ditu, zeinaren lehendakaria Kultura zuzendaria izango baita eta mahaikideak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikari bat. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari atxikitako pertsona batek jardungo du idazkari, eta hark hitza izango du, ez, ordea, botorik.

Balioespen batzordeak akta egingo du, aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, eta han, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun zerrenda zehaztuko da, hala badagokio.

2. Eskatzaileei ez zaie entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

3. Organo eskudunak, balioespen batzordeak proposatuta, eman beharreko ebazpenak emango ditu gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntza jasoko duten erakunde eskatzaileen zerrenda eta gainerako eskaeren esanbidezko ezespina jaso beharko ditu dirulaguntza emateko ebazpenak.

5. Ebazpenak baiestekoa badira, dirulaguntza zenbatekoa den adieraziko da, nola ordainduko den, eragiten zaion jardueraren programa, zer dokumentazio aurkeztu behar den eta zein baldintzarekin ematen den dirulaguntza.

6. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei banan-banan elektronikoki, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. Artikuluan aurreikusitakoarekin.

7. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari. Administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da bi hilabeteko epean, ebazpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoarekin.

11. artikulua. Emandako laguntza onartzea

Baldin eta laguntza eman izana argitaratzen denetik hilabete igaro ostean erakunde onuradunak berriaz eta idatziz uko egiten ez badio, hura onartutzat joko da.

Prozedurak dirauen bitartean, erakunde onuradunen batek uko egiten badio dirulaguntzari, organo emaileak erabakiko du, posible bada eta beste deialdi bat egin beharrik gabe, dirulaguntza gehiago esleitzea puntuazio hurrenkeran hurrengo dauden proiektuei edo jarduerari, baldin eta, betiere, onuradunetako baten ukoarekin, behar beste kreditu liberatzen bada ezetsitako eskaeretak bati, behintzat, erantzuteko.

12. artikulua. Emandako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

1. Gastuak zuzen zerrendatu eta justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza.

2. Esku hartzeari ekitea premiazkoa izateagatik harekin nahitaez hasi behar denean, eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren buruak txostena egin ondoren, emandako dirulaguntzaren ehuneko 40, gehienez, aldez aurretik edo kontura ordaindu ahal izango da, foru araudian ezarritakoari jarraituz.

3. Aurrerakina, dirulaguntza emateko ebazpenak hala adierazten badu, ebazpena eman den egunetik aurrera ordainduko da.

Gainerakoa, berriz, egindako gastuak behar bezala zerrendatu eta justifikatu ondoren ordainduko da, dena batera, aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" kenduz. Gastu guztiak justifikatzeko agiriak 2022ko abenduaren 30a baino lehen (egun hori barne) aurkeztu beharko dira.

4. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte 2022ko abenduaren 30a baino lehen:

4.1. Diruz lagundutako inbertsioak edo inbertsioek eragindako gastuak justifikatu beharko dira, behar bezala zerrendatuta. Diruz lagundutako aurrekontuaren zenbateko osoa adina diruz lagundutakoek, gastua justifikatzen duten fakturak edo beste egiaztagiri batzuk aurkeztuko dituzte.

Gastuak justifikatzeko, ez dira onartuko ondoko datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituzten ordainagiri edota fakturak:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

Halaber, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZaren konturako atxikipenen gaineko zerga araudia betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak (PFEZa edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga).

4.2. Diruz lagundutako inbertsioaren edo inbertsioen diru sarrera eta gastuen balantzea.

4.3. Diruz lagundutako inbertsioaren edo inbertsioen memoria. Nahikoa den informazio grafiko eta idatzia jaso beharko du, eta egindako esku hartzea argi deskribatu beharko du.

4.4. Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu izan behar dituen hiru aurrekontuak; alegia, obra kontratuaren gastu diruz lagungarriaren zenbatekoa 40.000 euro baino gehiago denean edo hornidura edo zerbitzu kontratuen zenbatekoa 15.000 euro baino gehiago denean.

Justifikazio dokumentazioa baliabide elektroniko bidez aurkeztuko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://web.araba.eus/es/sede-electronica>). Zehaztutako dokumentazioaz gain, erakundeak egiaztagiri bat aurkeztu beharko du, Arabako Foru Aldundiaren erakunde webean (<https://web.araba.eus/eu/cultura/patrimonio-historico-arquitectonico/tramites>) dagoen ereduari jarraituz, zeinetan jaso beharko baita espedientera sartzen diren fitxategiak jatorrizkoen irudi zehatza direla, jatorrizkoak erakunde eskatzailearen eskuetan daudela eta Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela hala eskatzen zaionean.

Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, faktura elektronikoak gastuak justifikatzeko erabili ahal izango dira.

Halaber, faktura elektronikoak aurkeztuz gero, e-faktura motako estandarren araberakoa izan beharko da haien formatua. Izenpe elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztuz gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaille kualifikatuen konfiantzazko zerrendan (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>) jasotako ziurtagiriak onartuko dira.

Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana egiaztatzen ez bada, ordainketa "justifikatu beharreko aurrerakin" gisa egingo da.

5. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek fakturak ordaindu direla egiaztatzen duten dokumentazioa aurkeztu beharko dute 2023ko martxoaren 31 baino lehen.

Honako hauek onartuko dira ordainagiri gisa:

- Bankuko egiaztageria, non zehaztuko baitira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketa-
ren edo transferentziaren onuraduna.
- Fakturaren jaulkitzaileak izenpetutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; han agertuko dira
faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Kontu korronteen libreten kopia, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.
- Erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza zentro eta
autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar). edo fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigi-
luarekin, adieraziz ordainduta daudela.

Halaber, ordaindu izanaren justifikazio agiriak baliabide elektronikoen bidez aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, eta haiekin batera aurreko apartatuan aipatutako egiaztageria aurkeztuko da.

Erakunde onuradunak Kultura eta Kirol Sailari ezarritako epea luzatzeko eskatu ahalko dio, betiere egiaztageriak aurkezteko epea bukatu baino lehen; eta hala badagokio, obrak zergatik atzeratu diren justifikatu beharko du.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2022rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo handik gorakoa (edo haren kontrabaliao atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako gastuen guztizko aurrekontua justifikatzen ez bada, dirulaguntza berriz kalkulatu da deialdi honen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Deialdiaren aurreko urtean Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren irizpideekin egindako obra, proiektu edo azterlanen kontura erakunde onuradunak ordaindu dituen fakturak hartu ahal izango ditu bere gain Foru Aldundiak, baldin eta uneko urtean onetsitako espediente batean badaude.

13. artikulua. Diru laguntzen bateragarritasuna

Deialdi honen bidez emango diren laguntzak bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein erakunde pribatuak (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek), bai eta Arabako Foru Aldundiko bertako beste sail batzuek ere, ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin, baldin eta ez badago alderdietakoren baten berariazko ezeztatzerik eta esku hartzeko irizpide teknikoak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak ezarritakoak badira.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntza edo laguntzekin batera, ez du inola ere gaindituko sortutako gastuen kostua.

Onuraduna behartuta dago dirulaguntza eman dion organoari jakinaraztera ea helburu bererako laguntzarik eskatu dion beste administrazio edo erakunde publikoren bati, izan nazioko izan nazioarteko, edo beste entitate edo erakunde pribaturen bati, eta laguntzarik eman dioten.

14. artikulua. Betebehar osagarriak

1. Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak egingo du dirulaguntza jaso duten jardueren jarraipena, eta hark egiaztatuko du ea egokitzen zaizkien berariaz onetsitako proiektuetan, Arabako Foru Aldundiak baimendutako eta diruz lagundutako negozio juridikoetan eta esleipena egiteko onetsi zen ebazpenean jasotako xedapenei.

2. Laguntzen esleipendun diren erakundeek Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuari jakinarazi beharko diote proiektua edo, hala badagokio, obrak esleitzeko erabakia, ikuska ditzan.

3. Horrez gain, ondare historiko-arkitektonikoaren defentsa edota azterketarekin lotutako organismo, erakunde edo elkarte publikoei sartzan uzteko beharra onartuko du, eta, baita ere, Arabako Foru Aldundiak halaxe erabakitzen duenean, jende guztiari bertara sartzan uztea, kultur eta arte esangura berezia kontuan izanda, hartarako ezarritako moduan.

4. Egindako zaharberritzea eta proiektuak hedatu eta sustatzeko, Arabako Foru Aldundiak aukeran izango du deialdi honen xede izan diren obren eta agirien irudia eta ikus-entzunezko dokumentazioa eta dokumentazio idatzia erabiltzea.

5. Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren finantzaketa dutela, iragartzeko karteletan, argazkietan nahiz diruz lagundutako proiektua dela-eta argitaratzen diren gainerako material grafiko, idatzizko zein entzunezkoetan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

6. Era berean, erakunde onuraduna behartuta dago honako hauek betetzera:

a) Obrak behar bezala gauzatzeko egin beharrekoak; hori dela eta, obren sustatzailea dela joko da.

b) Ondare historiko-artistikoa defendatzeko eta kontrolatzeko organo eskudunak esku hartzea berrikusiko du obrei ekin aurretik, eta kasuan kasuko proiektuak, memoria teknikoak edo behin betiko aurrekontuak egiteko orduan zorrozki jarraitu beharko zaie txosten horren xedapenei.

c) Obrak egiten diren bitartean gertatzen den edozein egoera jakingarri Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari ezagutaraziko dio, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren bitartez. Hori dela eta, hasierako proiektua aldatzen bada, Arabako Foru Aldundiko sail horrek berariazko baimena eman beharko du lanekin jarraitzeko.

d) Halaber, azterlan arkeologikoa ekar dezakeen edozein aurkikuntzaren berri eman behar da.

e) Elementu txiki, ermita edo eraikin finkatu edo zaharberritua segurtasun, osasun eta apaindura egoera egokian zaintzeko konpromisoa hartu behar da.

f) Arabako Foru Aldundiari, egoki baderitzo, azken txosten xehatu bat eman beharko zaio, egindakoaren norainokoa azalduz, haren funts dokumentaletara eta korporazioaren web orrira bildu ahal izateko.

7. Arabako Foru Aldundiak egin nahi diren jardunen ezaugarriei ñabardurak eransteko baldintzak ezarri ahal izango ditu, modu loteslean, eta erakunde onuradunak, jaso beharreko dirulaguntza jasotzeko orduan, hitz emango du baldintzak horiek onartuko dituela.

8. Deialdi honetan jasotako esku hartzea behar bezala justifikatu gabe gauzaten ez bada, edo Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan tipifikatutako edozein arau hauste egiten bada, zehapena ezarri ahal izango da aipatutako xedapenaren IV. tituluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

9. Dirulaguntza eskatzean edo izapidetzean, obrak abian balira Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren jarraipenik gabe, balioetsi egingo litzateke dirulaguntza ematea merezi duen. Horretarako, kontuan hartuko lirateke obren egoera eta egindako esku hartzeak.

15. artikulua. Obren zuzendaritza fakultatiboa

1. Diruz lagundutako obren zuzendaritza fakultatiborako, gutxienez egikaritze materialaren zuzendaritza izendatu behar da, hots, erakunde onuradunak horretarako izendatutako aparejadore edo arkitekto tekniko bat, eta hark zuzenduko du, hala badagokio, obren segurtasun eta osasun koordinazioa.

2. Behar-beharrezkoa denean proiektu tekniko bat idaztea, lanen zuzendaritza fakultatiboan, gainera, goi mailako arkitektoa egongo da.

3. Obrei esleitu zaizkien teknikariak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak ezarritako zaharberritze irizpideen aplikazioaz arduratuko dira.

16. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, zalantza hori Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du.

17. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da: www.araba.eus.